

## Día de la Iglesia diocesana 2018

### A Cáritas, Misiones y Manos Unidas

### La Diócesis destina la mayor parte de su presupuesto a la actividad socio-caritativa

- El año 2017 los ingresos ascendieron a 32.574.737,12 €.
  - Se emplearon 33.931.517,28 €. Un 44% para Cáritas, Misiones y Manos Unidas
  - Uno de los objetivos de la Diócesis es la autofinanciación. Actualmente es del 87%.
- Ante la Jornada Mundial de los Pobres que tendrá lugar el 18 de noviembre, la Diócesis pone el foco en `las personas en movilidad humana forzosa` que están llegando a Bizkaia. Desde junio, más de 3.500. Aproximadamente el 90% continúan su proyecto hacia otros territorios.
  - El Gesto Diocesano de Solidaridad se celebrará los próximos 16 y 17 de noviembre para `Gritar por la Justicia- Garrasi egin-Gartsu ekin`.
- El Centro de Orientación Familiar diocesano Lagungo cumple 25 años. Más del 70% de las personas que llegan a la institución se encuentran en una situación de inestabilidad económica, de precariedad, pobreza o exclusión social.

Con motivo de la **Jornada de la Iglesia diocesana**, que este año se celebra **el próximo 11 de noviembre**, el obispo de Bilbao ha realizado una comparecencia pública para dar a conocer las cuentas y las actividades de la Iglesia de Bizkaia. **La presentación se ha llevado a cabo en el centro de orientación familiar Lagungo, con motivo de su 25 aniversario.** Monseñor Iceta ha expuesto que, tal y como se hizo el año pasado, la Diócesis aunarà en torno al mismo mensaje las diversas actividades que se han organizado para el Día de la Iglesia diocesana, el Gesto Diocesano de Solidaridad y la Jornada Mundial de los Pobres: `Grita por la Justicia- Gasarri egin, gartsu ekin`. Con este motivo, ha referido una cita del papa en la que pide que **hay que mirar a nuestro alrededor y "escuchar el grito y las necesidades de los pobres"**. Ha concretado que en **Bizkaia, la Iglesia** además de alzar la voz, **"quiere seguir ofreciendo respuestas ante las injusticias"**. En este sentido, se ha referido al **"drama de las personas en movilidad humana forzosa"** que **están llegando a Bizkaia** desde la frontera sur, **"3.500 desde junio"**. La mayoría de ellas, **"un 90%, continúa su proyecto migratorio** viajando a otros países europeos", pero **algunas personas deciden quedarse aquí** y ante esta realidad ha añadido que, "es necesario que sigamos insistiendo en la **necesidad de que se ofrezca una acogida cálida a estas familias** fortaleciendo los recursos para su **integración plena"**.

La Iglesia de Bizkaia ha activado algunas respuestas "aunque nunca serán suficientes", ha señalado el obispo. En este punto ha ofrecido algunos datos relativos a los **comedores sociales** que gestiona Cáritas en **Bilbao y Barakaldo**, donde el curso pasado se atendieron a **"1.353 personas, un 12 % más que el anterior"**. En cuanto a los datos referentes a este año, hasta ahora Cáritas ha atendido

**“un 41% más de personas que el año pasado en este periodo”.** Con la llegada de personas migrantes, **en julio** se habilitó un **tercer turno** en el comedor social de las Apostólicas de Indautxu, en el que se **“movilizaron de forma inmediata más de 100 personas voluntarias”** para reforzar este servicio. Por otro lado, la Diócesis ha cedido un local en Berriz para **“acoger a migrantes, en paso, en situaciones de especial vulnerabilidad”**. **Un tercio del parking de las 93 viviendas que gestiona Cáritas** para el acompañamiento **a 300 personas** con necesidades han sido **cedidas por la Diócesis**.

### **Datos económicos 2017**

Mons. Iceta ha señalado algunas **actividades pastorales que impulsan las más de 314 instituciones diocesanas**. Para llevar a cabo las mismas, la mayor parte de los fondos que recibe la Diócesis de Bilbao, **“un 69%, proviene de los ingresos propios, aportaciones de los fieles y donativos”**. El obispo ha destacado la importancia de **“realizar una gestión eficaz y eficiente de los recursos”**. En este sentido se ha referido a **uno de los principales objetivos** de la Diócesis, que es el de **la autofinanciación**, **“en este momento es de un 87%”**, ha detallado. Durante el año 2017, la Diócesis contó con unos **ingresos de 32.574.737,12 €, 1,3 millones menos que el año anterior**, motivado **“en gran medida”** por el **“descenso de las aportaciones de los fieles y los donativos”**, aunque las **aportaciones directas en las parroquias han tenido un incremento del 2,56%** respecto al año anterior. Aún con esta disminución en las arcas diocesanas, **el destino principal de los fondos se sigue dedicando a la labor socio-caritativa: “un 44% se ha dirigido a Cáritas, Misiones y Manos Unidas”**.

### **25 aniversario de Lagungo**

El centro de orientación familiar diocesano, Lagungo cumple 25 años. El director, **Jon Elordui**, ha ofrecido algunos datos relativos a la Fundación y al perfil de las **8.000 personas que han utilizado sus servicios durante estos años**. **“En la actualidad más del 70% de los usuarios se encuentran en una situación de inestabilidad económica, de precariedad o exclusión social”**. El centro, desde sus inicios, ofrece a la sociedad un **“servicio humano y cualificado”** en colaboración con las instituciones públicas y privadas. En cuanto al perfil de las personas atendidas hay un número significativo de personas que han sufrido abusos en la infancia. **“El 99% sufrieron abusos en el seno de la familia o cercanos a ella”**. Se atienden además a familias con problemas de convivencia por los hijos adolescentes, duelos por la pérdida de alguien querido, separaciones etc.

### **Gesto Diocesano de Solidaridad**

La **coordinadora general de Cáritas diocesana de Bilbao, Mavi Laiseca**, ha cerrado el turno de intervenciones dando a conocer algunas realidades de pobreza que acompaña Cáritas. Se ha referido además a las actividades que desde la Diócesis se han organizado con motivo de la Jornada Mundial de los Pobres. El **próximo 16 de noviembre**, cientos de jóvenes de los centros educativos realizarán un **grito sonoro** conjunto en el parque de Doña Casilda. **“Por medio de este gesto, se quiere visibilizar que la juventud también se compromete y grita en contra de muchas injusticias que hay en nuestro alrededor”**.

El **17 de noviembre** tendrá lugar una **comida-encuentro y talleres** en la **ikastola diocesana Begoñazpi** en la que se compartirá mantel con personas empobrecidas de nuestro entorno. Al día siguiente en muchas parroquias de Bizkaia realizarán actividades comprometidas con las personas más desfavorecidas con motivo de la II Jornada Mundial de los Pobres.

## Eleizbarrutiaren eguna 2018

**Caritas, Misinoak eta Esku Elkartuak erakundeei**

### **Eleizbarrutiak gizarte-karidade arloko jardueretan darabil aurrekontuaren zatirik handiena**

- 2107an, sarrerak 32.574.737,12 eurotakoak izan ziran.
  - Caritas, Misinoak eta Esku Elkartuak erakundeei zuzendu jaken %44a, 33.931.517,28 €.
  - Autofinantzaketa da helburuetako bat. Gaur egun, %87koa da.
- Azaroaren 18an ospatuko dan Behartsuen aldeko Munduko Eguna dala-eta, Eleizbarrutiak Bizkaira heltzen ari diran “derrigorrezko giza mugikortasunezko personengan” jarriko dau arreta. Ekainetik hona, 3.500 etorri dira. Ehuneko 90 inguruk euren egitasmoagaz jarraitzen dau, beste lurralde batzuetarantz joz.
  - Azaroaren 16 eta 17an Eleizbarrutiko Alkartasun Zeinua ospatuko da helburu honegaz: ‘Gritar por la Justicia- Garrasi egin-Gartsu ekin’.
- Lagungo Familia Biderapenerako Eleizbarrutiko Zentroak 25 urte bete ditu. Erakunde honetara heltzen diranen %70ak baino gehiagok ezegonkortasun ekonomikoa, behin-behinekotasuna, pobretasuna edo gizarte bazterketa jasaten dau.

Aurton **azaroaren 11n** ospatuko dan **Eleizbarrutiaren eguna** dala-ta, Bilboko gotzainak agerraldi publikoa eskaini dau Bizkaiko Eleizaren kontuen eta jardueren barri emoteko. Aurkezpena, **hogeta bosgarren urteurrena ospatzen diharduan Lagungo familia biderapenerako zentroan izan da**. On Mario Izeta gotzainak azaldu dauanez, iaz egin zan lez, aurton be Eleizak mezu beraren inguruan batuko ditu Eleizbarrutiaren egunerako, Eleizbarrutiko Alkartasun Zeinurako eta Behartsuen aldeko Munduko Egunerako antolatu diran askotariko jarduerak: ‘Grita por la Justicia – Garrasi egin, gartsu ekin’. Horren inguruan, aita santuak esandako hitzak gogoratu ditu: **ingurura begiratu behar dogu eta “behartsuen garrasia eta beharrianak entzun”**. Bere esanetan, **Bizkaian, Eleizak**, garrasi egiteaz gainera, **“bidegabekerien aurrean erantzunak eskaintzen jarraitu gura dau”**. Hori dala-eta, **“derrigorrezko giza mugikortasunezko personen zoritxarra”** aitatu dau. Hegoaldeko mugatik **Bizkaira datozen** personak dira, hain zuzen be, **“ekainetik hona 3.500”** inguru. Gehienek, **“ehuneko 90 inguruk euren egitasmoagaz jarraitzen dau**, beste lurralde batzuetarantz joz”, baina **batzuek hemen geratzea erabagitzen dabe** eta errealidade horren aurrean, adierazo dau, **“ezinbestekoa da familia honeentzako harrera beroa aldarrikatzea eta eskatzea, osoko gizarteratzerako bitartekoak sendotuz”**.

Bizkaiko Eleizak aktibatu dau hainbat erantzun, "nahiz eta sekula nahikoak ez izan", esan dau gotzainak. Eta Caritasek **Bilbon eta Barakaldon** kudeatzen dituan **jantoki sozialen** inguruko datuak emon ditu. Esate baterako, joan dan kursoan, "**1.353 laguni, aurreko urtean baino %12 gehiagori**" eskaini jakon arreta leku horreetan. Aurtengo datuei dagokienez, orain arte Caritasek jente gehiagori eskaini deutso arreta, "**%41 gehiagori**". Etorkinen etorrera dala-eta, **uztailean hirugarren txanda** jarri zan Indautxuko Apostolikoen jantokian eta "**bat-batean hasi ziran lanean 100 boluntariotik gora**", zerbitzua sendotzeko. Beste alde batetik, Eleizbarrutiak lokal bat itzi dau Berrizen, "ahulezia nabarmenean, gure lurraldetik igaroten diran etorkinei harrera egiteko". Beharrianak dabezan **300 laguni** akonpainamentua eskaintzeko **Caritasek kudeatzen dituan 93 etxebizitzan herena Eleizbarrutiak itzitakoa da.**

## **2017ko datu ekonomikoak**

On Mario Izetak **Eleizbarrutiko 314 erakundeek bultzatzen dabezan pastoral jardueretako** batzuk aitatu ditu. Horreetako gehienak garatzeko Bilboko Eleizbarrutiak jasoten dauan diru gehiena, "**%69a, berariazko sarreretatik, eleiztarren ekarpenetik eta dohaintzetatik dator**". Gotzainak "baliabideen kudeaketa eraginkorra egiteak" dauan garrantzia azpimarratu dau. Honen haritik, **helburu nagusienetakoa** aitatu dau, **autofinantzaketa**, "une honetan, **%87koa**" dana. 2017an, Eleizbarrutiak **32.574.737,12 eurotako diru-sarrera** izan eban, hau da, **aurreko urtean baino 1,3 milioi gitxiago**. Beherakada hori, "**eleiztarren ekarpenetan eta dohaintzetan**" gertatu zan, nahiz eta **parrokietan zuzenean jasotako ekarpenek gora egin %2,56an**, aurreko urteagaz alderatuz. Eleizbarrutiko kutxan diru gitxiago sartu bada be, **diru gehiena gizarte-karidade jardueretan** erabilten da: "**%44a**, Caritas, Misinoak eta Esku Elkartuak erakundeetara zuzendu da".

## **Lagungoren 25. urteurrena**

Lagungo familia biderapenearako zentroak 25 urte bete ditu. **Jon Elordui** zuzendariak Fundazioaren eta urte honeetan zentroaren zerbitzuak jasotera hurreratu diran 8.000 lagunenguruko hainbat datu eskaini dau. "Gaur egun, erabiltzaileen %70etii gora dira ezegonkortasun ekonomikoa, behin-behinekotasuna edo gizarte bazterketa jasaten dabenak". Zentroak, hasieratik, "zerbitzu gizatiar eta kualifikatua" eskaintzen dau, erakunde publiko eta pribatuakaz lankidetzan. Arreta eskaini jaken personen ezaugarriei dagokienez, kopuru esanguratsua da "haurtzaroan abusuak jasan dabezan personena. "**Ehuneko %99ak abusuak jasan ebezan senitartekoen edo hurkoen aldetik**". Arreta eskaini jaken familia bizitzan, nerabeakaz arazoak dabezan familiei, doluak egin dira senide edo lagun maiteren bat galdu dabenakaz, banantzeak jasan dabezanakaz, e.a.

## **Eleizbarrutiko Alkartasun Zeinua**

**Mavi Laiseka Bilboko Eleizbarrutiko Caritaseko koordinatzaile nagusiak** jardun dau azkenean, Caritas azaltzen dan pobretasunezko eremuak ezagutzera emonez. Gainera, Eleizbarrutian Behartsuen aldeko Munduko Egunerako antolatu diran jardueren barri emon dau. **Azaroaren 16an**, ikastetxeetako ehunka gaztek **garrasi egingo dabe** Doña Casilda parkean. "**Zeinu honen bitartez, gazteak be konprometitzen dirala eta gure inguruko bidegabekerien aurka garrasi egiten dabela agertzera emon gura da**".

**Azaroaren 17an, bazkari-topaketa eta tailerrak** egingo dira **Begoñazpi eleizbarrutiko ikastolan**. Gure inguruko gizon eta emakume txirotuakaz jarriko dira mahaiaren inguruan. Biharamunean, Bizkaiko hainbat parrokiatan egingo dira ahulenen aldeko konpromisozko jardueran, Behartsuen aldeko Munduko II. Egunaren haritik.